

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

GAIA

Edorta Zubizarreta
alkatearekin
elkarrizketa /8

AISIALDIA

Hogeiabost gazte
Anoetan/9

LEINTZ GATZAGA

Zortzi bikote pilota
txapelketan /10



Atxabaltarrok Taldekoek 'GARTZONTZILO ZIKINAK' airatu gura dituzte

Atxabaltarrok izeneko taldea sortu da gure herrian,
eta euskal herritarren aldeko eskubideak
defendatu nahi ditu

GUARDIAKOFARMAZIA

ZAPATUA, 07
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

DOMEKA, 08
ITURRALDE. Mitarte 18..... 943 79 27 22

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK

Almen 943 71 49 07
ARETXAGAZETA 943 79 86 21
Faxa 943 77 18 54
Basotxo 943 77 09 81
Euskaltegia 943 79 21 68
Gizarte laguntzailea 943 71 18 62
Hezibide elkarteak 934 79 31 32
Industrialdea 943 79 62 80
Instituta 943 79 79 00
Kirol etxea 943 71 26 28
Kultura etxea 943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola 943 79 00 49
Kurtzebarri BHI 943 79 57 40
Liburutegia 943 71 18 62
Loramendi EE 943 77 09 70
Ludoteka 943 79 05 81
Mankomunitatea 943 79 30 90
Murrutxiko IME 943 79 93 74
Musika Eskola 943 79 36 50
Osasun etxea 943 71 19 59
Otalora 943 71 24 06
Parrokia (bulegoa) 943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola 943 77 03 77
Postetxea 943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea 943 79 17 00
Saretxo 943 71 26 56
Taxi geltokia 943 79 22 33
Udal Bulegoak 943 71 18 62
Udaltzaingoa 943 71 18 63
Urats Gain 943 79 99 11

UDALZAIINGOA
Arrasate 943 79 14 39

LARRIALDIAK

SOS Deiak 112
Eskualde Ospitalea 943 03 53 00
Ertzaintza 943 79 71 99
Gurutze Gorria 943 76 55 76
Larrialdia 943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati) 943 78 28 00

MEZAK

ANDRA MARIAREN ZERURATZE PARROKIA
Domeketan: 11:00/12:00
Zapatuetan: 19:30
Lanegunetan: 19:00

SANTA RITA
Domeketan: 09:00/10:00
Lanegunetan: 08:00

BASERRI AUZOETAN:

AZATZAN
Domeketan: 11:30

MENDIOLA
Domeketan: 12:00 (Otoitzaldia bakarrik)

GALARTZA
Domeketan: 12:30

OHARRAK

UDAZKENEKO JAIALDIA
Kurtzebarri Eskolako ikasleek, irakasleek eta gurasek Udazkeneko Jaialdia egingo dute, gaur, hilak 5, Iturigorri pilotalekuan, 18:00etan.

SAN MARTIN-SAN JOSE KOFRADIAREN BATZAR OROKORRA
Abenduaren 8an, domekan, San Martin-San Jose Kofradiako bazkideek urteko batzar orokorra egingo dute. Batzarra 11:00etan hasiko da, Kurtzebarri Eskolan. Batzar horretan, besteak beste, batzordekidek aukeratzeko bozketa egingo dute.

MIKCHAIL BURLAKOV AKORDEOILARIAREN EMANALDIA
Bihar, hilak 6, Mikchail Burlavo akordeoilariak kontzertua emango du, parrokia nagusian, 20:00etan. Aretxabaketako Akordeoi Orkestrak eta Udaleko Kultura Sailak antolatu dute kontzertua.

ERAKUSLEIHOEN LEHIAKETA
Aretxabaketako Udaleko Kultura batzordeak, urtero moduan, herriko merkatarientzako Erakusleihen Lehiaketa antolatu du. Parte hartu gura duenak abenduaren 8tik 31ra bitartean apainduta izan beharko du erakusleihoa.

LORAMENDIRENAGENDA

SEASKAKO EGUTEGIAK SALGAI
2003. urteko Seaskako egutegiak salgai daude Loramendi Elkarteko egoitzan. Egutegi bakoitzak hiru euro balio du. Gura baduzu, jo egoitzara, 16:00etatik aurrera.

LITERATURA LEHIAKETA
Gogoratu Loramendi Literatura Lehiaketako lanak abenduaren 18rako aurkeztu beharko dituzuela Loramendiko egoitzan.

ORAINDELA 6 URTE ARETXABALETAN

Zezeaga, Elkoro eta Etxaniz, Aretxabaletan

1997ko abendu hasieran, hiru pilotari profesional izan ziren Aretxabaletan. Jose Mari Zezeaga uberatarrak, Aitor Elkoro elgetarrak eta Jokin Etxaniz bergarrak Aretxabaletakeko Pilota Taldeko neska-mutilekin pasatu zuten arratsaldea. Nagusiek, gainera, partidua jokatu zuten.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

“Morroskillua”


Borroia, garabatoa.
— *Asierrek kuaderno dana morroskilloz beteta dauka.*



ZORIONAGURRAK



ARETXABALETA
Nagore Uriarte
4an, 10 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Jabier Uriarte
5ean. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mireia Dávila
8an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ESKORIATZA
Gema Galdona
Abenduaren 2an, urtebetetzea. Zorionak! Senarra eta seme-alabak.



ESKORIATZA
Aitor Arroibe
29an, 5 urte. Zorionak eta muxu bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Mari Carmen Fuensanta
4an. Zorionak eta muxu handi bat, Gureako lagun partetik.



ARETXABALETA
Mikel Arroibe
1ean. Zorionak, ARETXAGAZETAkoen eta *Goienkaria*-koen partetik!



ARETXABALETA
Leire Izagirre
23an, 7 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko partetik.



ARETXABALETA
Xabier Nuñez
4ean, 5 urte. Zorionak eta muxu bat, Jokinen eta beste denon partetik.

Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak ARETXAGAZETAren bidez!
Ekar itzazu haien argazkiak eta emaezuzuzusteko ederra!
Doan!

Esko Sport

Zure konfiantzako denda


Intxaurtxueta 5, Eskoriatza. 943 71 52 96
LARUNBAT ARRATSALDEZ IREKITA




ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TEL. 943 79 32 34

ATREBENTZIAEZPADA/ Durangoko Azokara fateko ohiturarik badauketzu? Eta aurten fango zara?




ANDONI ALTUBE
langillie



KARMEN UGALDE
langillie




JOSE ANJEL VITORIANO
langillie



JON ETXEBERRIA
ikaslie



AINHOA CABERO
ikaslie



EMILIA SANZ
langillie

Bai, urtero-urtero fan izen naz. Gaiñera, beti erosi izen dot libururen bat edo diskoren bat. Askok gustetan jat Durangoko Azokan egoten dan girue, eta aurten be fateko asmue dauket.

Jeneralien, faten naz. Eta aurten be fango nitzake, baiñe umiek beste zer edo zer egin gure daue eta ezin izengo gare fan. Bestela, ixerterro fan izen gare bueltaxo bat emutera.

Egixe esan, behin bakarrik fan naz Durangoko Azokara. Hala eta be, aurten, fateko asmuekin nabil. Kua-drillan fango gare, eta seguruenik libururen bat edo diskoren bat erosiko dot.

Ez. Sekule ez naz fan Durangoko Azokara, eta, gaiñera, ez dauket asmorik fateko, sekule be. Liburuek ez jat askorik gustetan eta diskuek hamen inguruko dendaren baten be erosi neike.

Ez, ez dauket ohitura haundirik. Beti fatekotan, baiñe azkenien, beti zer edo zer eukitten dot egitteko. Hala eta be, urteren baten fango naz; izen be, asko gustetan jat irakurtzie.

Ez, ez dauket ohiturarik hara fateko. Beti jaieguntan egitten da Durangoko Azokie, eta jeneralien, hor zihher faten gare. Hala eta be, liburuek eta irakurtzie asko gustetan jat.

TXALOAKETATXISTUAK



TXALOAK AUTOAENDAKO APARKALEKUAK Bazen ordua autoendako aparkaleku txukuna egiteko. Geroago eta auto gehiago dago herrian, baina aparkalekuak orain hamar urte zeuden berdinak dira. Duela gutxi zinema zaharraren atzealdean egin duten aparkalekuak ez da guztiz berria; hala ere, eskertzekoak dira leku horretan auto gehiago aparkatzeko egin dituzten txukuntze lanak./A.L.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

Atxabaltarrok taldea

Astelehenean, hilak 2, Atxabaltarrok taldea aurkeztu zuen prentsaurrekoan herriar talde batek.

ASTEAN BEHIN /05

Negu Kultural-eko egitaraua

Kultura Sailak Negu Kulturala izeneko egitaraua gertatu du. Ekitaldiak bihar, hilak 6, hasiko dira.

KIROLAK /06

Xakeko Euskal B Liga

Aretxabaletako Arlutz Xake taldeko mutilek ezin hobeto hasi dute Xakeko Euskal B liga.

ASTEKODATUA

33.450

EURO KOSTATU DIRA ELIZAKO LANAK GALARTZAN

Galartzako elizan hainbat zaharberritze lan egin dituzte azkenaldian. Besteak beste, eliza margotu eta argindar sare berria jarri dute. Atartearen, gainera, burdinazko itxitura jarri dute.

BESTEKEESANA


Udalak egin duen Urkulurako bidegorriak ez dauka ia aldaparik, eta gainera, inongo arrisku barik joan daiteke bertatik. Izan ere, bidegorri horretatik ez dira autorik, ez eta motorrik, ibiliko. Eta horretaz gain, bidegorria hasieran, Bainuetxeko industrialdean autoendako aparkaleku itzela egin dugu, beraz, autoa uzteko jendeak ez du inongo arazorik izango.

Kontuan hartu beharrekoa da gure helburu nagusia Urkulu ingurutik ahalik eta auto gehien kentzea dela, eta uste dut egin berri dugun bidegorri honek asko lagunduko digula.

Urkuluko bidegorria atxabaltarrondako eta kanpotik datozen guztiendako egin dugu.

ANJEL BERGARATXE
Arrasate irratia/02-11-28

HERRITARRENBERBAK/ Arantxa Jaka



Berriro ere...

Argiak piztu dira gure herrietan, eta koloreetako bonbilla ugariak irudi ezberdinak osatzen dituzte; erakuslehoak dotoretasunez apainduta; komunikabidetako iragarkiak inoiz baino gehiago kontsumora bultzatzen... Bai, abendua iritsi da eta berekin dakar saria: erosketak, janariak, opariak, presak, Olenzero, Bizar Zuri, Papa Noel... Urtarrila iristen denean hustutako poltsikoak betetzen joango dira, eta irabazitako kiloak galtzen. Eta nire buruari galdetzen diot: hori guztia, zergatik? Zerk eragiten dio gizadi zati bati egun hauek horrela bizitzera? Eta ez dut erantzunik.

Kosta egiten zait ulertzea, eta aurreko artikulua ildotik jarraituaz, gure bizitzan fedeari tokirik eman nahi ez diogun honetan, nola mantentzen ditugun jai hauek. Gustatzen zaigu esatea aurrerakoia edota modernoak garela, baina uste dut sakonean kontserbadurismo asko daukagula eta komeni zaigunean eszenatokira ateratzen dugula.

Egoera honek ito egiten nau, eta modu diferente batean bizitzen saiatuko naiz. Uko egin nahi diot kanpotik inposatzen zaidan egoera bati, eta egun hauetako, Eguberrietako, zentzu sakona aurkitzen saiatuko naiz. Gustatuko litzaidake aldarrikatzea Gabonak sekulan idatzi ez

den maitasun historia baten errealitatea direla, baina ez orain hain modan dauden maitasunezko historiak bezalako bat ez, askoz ere politagoa, eta hauxe da: Jainkoa zeruan ez dagoela, baizik eta lurrera jaitsi, eta nirekin dagoela. Inori ez zaio

gustatzen bakarrik sentitzea, sufritzea; atsegingarria da jakitea beti gure ondoan norbait daukagula, onean eta txarrean lagunduko diguna aurrera egiten. Ba, ez daukagu inora joan beharrik horrelako Norbait aurkitzeko, gure bihotzean daukagu: saia gaitezen Jesus ezagutzen. Gure bizitzak beste kolore bat hartuko du eta orduan bai izango garela benetako bakegileak, askatzaileak, eskuzabalak, solidarioak... Benetako zoriona opa dizuet!

"Urtarrila iristen denean hustutako poltsikoak betetzen joango dira, eta irabazitako kiloak galtzen. Eta hori guztia, zergatik?"

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Aintzane Gardoki

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Amagoia Lasagabaster

MAKETAZIOA
Goio Arana

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
SS-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
4.100 ale

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Eusko Jaurilaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



M. J. Aretxaga

Andaluzian euririk ez

Lehendabizi, neronek ere zoriondu gurako nituzke bi mendizale: Alberto Iñurrategi eta Jon Beloki. Oraingoan ere iritsi dira Cho Oyu gailurrera. Neguan, gainera, han ere hemen antzera ez da giro izango. A zelako euri zaparradak bota dituen astean; neu ere beldurtu naiz.

Andaluzia aldean ez dakit horrenbeste euri egin duen, baina hango aldean haserre dabilta. Igor Arenaza eta Motri-leko futbol taldeak 10 egunetan itxialdia egin dute aldageletan, soldatarik ez dietelako ordaintzen. Han ere ez da giro, aber laster konpontzen duten arazoa.

Bukatzeko, Negu Kultureko programazioa aurkeztuko dizuet. Dagoeneko kalean dago eta bihar lehen ekitaldia izango da: Mikchail Burlakov akordeoilarien emanaldia izango da.

TALDE BATEN SORRERA/ Abenduaren 13tik 14ra bitartean, itxialdia egingo dute

Atxabaltarrok taldea aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten

AMAGOIA LASAGABASTER

Beste herri ekimen bat sortu da Aretxabaletan: Atxabaltarrok taldea. Astelehenean, hilak 2, egindako prentsaurrekoan eman zuten ezagutzera taldea. Aurretik, baina, Franko bizirik dago eta Gartzontzilo zikinik ez kanpaina egin zuten, herrian kartelak jarrita.

“Independentziaren alde eta sasi-Bush guztien gaintetik, autode-terminazioa”. Horixe aldarrikatu zuten Atxabaltarrok taldeko bozeramaileek astelehenean, hilak 2, egindako prentsaurrekoan. Hogeita hamar lagun inguru batu ziren udaletxe zaharrean egindako prentsa deialdian. Denak txapela buruan eta betaurreko beltzak jantzita azaldu ziren komunikabideen aurrean. Horretarako, gainera, arrazoi bi zituzten: batetik, aretxabaletar anonimoak izaten jarraitzeko nahia; eta, bestetik, gaur egun horrelakoak egiteko klandestinitatea beharrezkoa dela uste dutelako.

SALAKETA UGARI

Atxabaltarrok taldekoek uste dute gaur egun Euskal Herriak bizi duen egoera oso latza dela. Haien esanetan, gainera, Ameriketako Estatu Batuetako presidentek, George Bush, zerikusi handia dauka gai horretan: “Hemen ere Bush enperadorearen akolitoak jo eta egur dabilta gu mapatik ezabatu guran. Ez daukate inongo lotsarik oinarri-oinarrizko eskubideak urratu,



AMAGOIA LASAGABASTER

Hainbat arlotan lan egiten duten herritarrek hartu zuten parte prentsaurrekoan.

ipurdia garbitu eta zakarrontzira botatzeko”. Eskubide urraketak horiek hainbat alderditan sumatzen dituzte Atxabaltarrok taldekoek: “Biltzeko eta manifestazioak egiteko eskubidean, hezkuntzaren gaineko kalitate legean, euskararen erabilerarako jartzen dituzten oztopoetan...”. Horiek, besteak beste, aipatu zituzten prentsaurrekoan.

ITXIALDIA

Aurrerantzean, Atxabaltarrok talde moduan antolatu eta zenbait ekitaldi egitea pentsatu dute. Hala, abenduaren 13tik 14ra bitartean, itxialdia egingo dute udaletxean. Gainera, Atxabaltarrok taldekoek horrelako ekitaldiak arrakastatsuak izan daitezzen herritar guztien laguntza eskatu zuten prentsa agerraldian.

LABUR

Aretxabaletako kaleen planoaren argitaratu dute

Nekar enpresak, Kultura Sailarekin lankidetzan, Aretxabaletako kaleen planoaren argitaratu dute. Planoaren atzeko aldean, besteak beste, herriko festa nagusien gaineko informazioa batu dute. Planoa astean banatu dute herrian. Denera, 6.500 ale argitaratu dituzte.


Herriko Plaza 3ko gunea urbanizatzeko lanak egiten ari dira

Orain dela aste bi hasi ziren Herriko Plaza 3ko ingurua urbanizatzeko lanak egiten. Gune hartan etxebizitzak egin zituztenean, zati bat urbanizatu barik gelditu zen, eta orain, lan hori egiten ari dira. Besteak beste, inguru hartako lurra berdintzeko asmoz, zulo handi bat tapatu dute.

San Martin-San Jose Kofradiaren batzar orokorra

Oraingo domekan, hilak 8, San Martin-San Jose Kofradiako bazkideek batzar orokorra egingo dute. Batzarrean, besteak beste, batzordekideak aukeratzeko bozketa egingo dute. Aurten, batzordetik kanpo geratuko dira Koldo Zubillaga, Iñaki Urreta, Elisabet Akizu eta Lorea Barrutia.

Lubia
oinetakoak



zapatak, zapatilak, gerrikoak eta poltsak

Mitarte 14 • 943 79 16 00
ARETXABALETA
Biteri 1 • 943 79 66 53
ARRASATE

JOSU HARATEGIA

Urdaitegia-Gozotegia
kroasantegia
Janari prestatuak

Mitarte kalea
ARETXABALETA
943 77 03 08

Mobiliario ARENAZA


- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia,1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BEGIBO

optika

Loramendi, 10
Aretxabaleta
Tel. 943 79 98 21



EGUSKIGRAF
inprimategia

1980tik zuen zerbitzura

gabonetako postalak, kalendarioak, crismak, lan egutegiak, egutegiak, aldizkariak, erriak, loteria, tarifak, ekintza programak, sarrerak

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4
Araba Ibilbidea
20550 ARETXABALETA
Tfnoa.: 943 791844 / Faxa: 943 792941
info@eguskigraf.com



Zenbaki

- Kontabilitatea
- Fiskalitatea
- Lana
- Juridikoa

Aholkularitza

Basabe poligonoa, F-O-10 (1. solairua) ARETXABALETA
Tel.: 943 71 21 12 - Fax: 943 71 22 68

KULTURA/ Abenduaren 6tik otsailaren 1era bitartean egingo dituzte ekitaldi guztiak

Negu latzari aurre egiteko, aurten ere Negu Kulturala

AMAGOIA LASABASTER

Urtero moduan, aurten ere Udaleko Kultura Sailak ez dio hutsik egin Negu Kulturalari. Izan ere, abendurako eta urtarrilerako hainbat kultura ekitaldi gertatu dituzte. Besteak beste, kontzertuak, umeendako jolasak eta erakusketak antolatu dituzte.

Aurten ere, neguko giroa bertzeke asmoz, Kultura Sailak Negu Kulturalako egitaraua kaleratu du. Gehienbat, umeendako gertatu dute egitaraua. Edozelan ere, musikazale direnek ere aurkituko dute euren gustuko zer edo zer Negu Kulturalan.

MUSIKA EMANALDIK

Negu Kulturalako egitarauaren barruan musikak tarte nagusia izango du aurten; izan ere, Aretxabaletako Akordeoi Orkestraren eta Leizarra Musika Eskolaren ohiko kontzertu emanaldiez gain, bestelako ekitaldiak ere egingo dituzte gure belarriak goxatzeko. Aurtengo Negu Kulturala, esaterako, Mikchail Burlakov akordeoilariak estreinatuko du. Mikchailek bihar, egubakoitza, eskainiko du kontzertua, herriko parrokia nagusian. Abenduaren 14an, bestalde, Donostiako Ereski Abesbatzak hartuko dio lekukoa Mikchail akordeoilariari. Donostiarrek ere parrokia nagusian egingo dute emanaldia. Bestalde, aipamen bere-

Negu Kulturalako egitarauaren barruan musikak tarte nagusia izango du aurten

Aipamen berezia merezi du Bjelaveko umezurtz-etxearen alde egingo duten kontzertuak

Umeek, Gabonetako oporretan gura adina jolas egin dezaten, Poxpolin Park izango dute

zia merezi du Bjelaveko umezurtz-etxearen alde urtarrilaren 4an egingo duten kontzertu lirikoak. Kultura Sailekoek aspalditik zuten asmoa Sarajevoko Bjelave herrian dauden umezurtzen aldeko kontzertua egiteko, eta orain, Negu Kulturalako egita-

rauren barruan, horretarako aukera paregabea ikusi dute. Kontzertu lirikoa J. Anasagastik egingo du, eta nagusi zein gaztetxoenei zuzenduta dago.

ERAKUSKETAK ETA ARTIUM

Kultura Sailak erakusketa bakarra beharrean hiru jarriko ditu ikusgai aurten: lehenengoa, Justino Uribesalgoren argazki bilduma izango da, eta abenduaren 20an zabalduko dute, udaletxe zaharrean; bigarrena, Artium Autobusak dakarrena, Olentzero pasatu eta gero helduko da Aretxabaletara, abenduaren 28an, hain zuzen ere. Artiumek Arte Garaikideko Euskal Zentro Museorekin zati bat jarriko du ikusgai gurean; eta, azkenik, urtarrilaren 27tik otsailaren 1era bitartean, Udal Prebentzio Zerbitzukoek *Drogak: gizarte gaia* izeneko erakusketa jarriko dute, udaletxearen ganbaran.

POXPOLIN PARK

Negu Kulturalak beti hartzen ditu kontuan umetxoak, eta aurten ere horiendako ez da ekitaldirik falta izango. Euren dako propio ekarriko dituzte Aretxabaletara Olentzero, Bizar Zuri eta errege magoak. Eta, jakina, Gabonetako oporretan gura adina jolas egin dezaten Poxpolin Park izango dute. Era guztietako lantegiak eta uretako jolasparkea biltzen dituen jolasgunea kirol etxean jarriko dute, abenduaren 26tik 28ra bitartean.

TXUTXUMUTXUA



Kantaldi ederrak entzun ziren Apotzagan

San Migel jaietan taloak egiten ibili ziren lagun guztiek afari ederra egin zuten, joan den egubakoitzean, azaroaren 29an, Apotzagan. Menua: entsalada, oilasko erreka eta Jasone Gorroñok egindako gazta-tarta goxoa. Interesgarriena, baina, afa-lostean egin zuten kantaldia izan zen: *Gaztelugatxe, Euskal Herriaren Euskaraz, Itsasuntzi baten*, eta horrelako euskal kantauak abestu zituzten. Hala, taloak egiten bakarrik ez, kantuan ere paregabeak direla erakutsi zuten. /A. L.

LABUR

Xabier Sarasuak xakean euskaraz egiteko liburu-fitxa aurkeztuko du Durangoko Azokan

Euskal Herriko xake jokalariek xakean euskaraz egiteko aukera paregabea izango dute laster. Izan ere, Xabier Sarasuak xakeko material guztia euskaraz landu, eta fitxa-liburu baten

bildu du. Liburu hori gaur ireki dute Durangoko Azokan egongo da salgai. Xabier Sarasuak Debarroko Euskara eta Kirol Zerbitzuak iaz emandako beka bati esker egin du lana.

SANER

ITURGINTZA

Nafarroa 8, 2-A
ARETXABALETA
943 79 64 91
605 71 66 92 / 629 47 72 70

Angelines
AUTOZERBITZUA

Frutan eta txarkuterian espezialitatea

Mitarte, 16 • 943 79 61 42
ARETXABALETA

PIENSO SUNZUE S.A.

FELIX PAGALDAY

Laborantza tresnak Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea
ARETXABALETA
Tel.943 77 00 33/79 42 56

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

J.J. IRURE
ITURGINTZA

URA GASA KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA
943 793 187

ORLA

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

Jou Diaz

Harakina

Loramendi, 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

BASABE

jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel: 943 79 91 84
Aretxabaleta

Miren & Zuriñe

Bitxitegia • Erlojudenda
Bitxien diseinua
Bitxien konponketa

Otalora, 4 (eliza aurrekaldean)
Tel.: 943 77 13 57
ARETXABALETA

XAKEA

Arlutz Xake Taldeko jokalariek ezin hobeto hasi dute Euskal B Liga

Azken partidua 3-1 irabazi eta gero, sailkapen orokorrean lehenak dira, zazpi punturekin

AMAGOIA LASAGABASTER

Aretxabaletako Xake Taldea Euskal B Ligako lider da. Jardunaldi bi jokatu eta gero, aretxabaletarrak zazpi puntu-rekin daude sailkapen orokorrean. Gainera, joan den zapatuan, azaroaren 30ean, 3-1 irabazi zioten ligako aurkari gogorrenetariko bati.

Ez zen lan erraza izan, baina, azkenean ere, Arlutz Xake Taldeak 3-1 irabazi zion Bilboko Peña Ardid Taldeari. Aretxabaletarrek bazekiten joan den zapatuko jardunaldia gogorra izango zela; edo zelan ere, emaitza ona izan zen. Arlutz Xake Taldeko Franek eta Estebanek euren partidak irabazi zituzten, eta Aitor Alcaidek eta Andoni Migelek berdindu egin zuten.

Oraingo zapatuan, hilaren 7an, Donostiako Gross Xake Taldearen aurka jokatu dituzte partidak. Arlutz Xake Taldeko Aitor Alcaide xakelariaren esanetan, donostiarrak ere punta-puntako xakelariak dira, eta haiei irabaztea ez da lan erraza izango: "Seguruenik, bilbotarrak eta



Arlutz Xake Taldeak ere izango du euskarazko materiala erabiltzeko aukera.

donostiarrak dira ligan izango ditugun aurkaririk gogorrak. Bilboko taldeari dagoeneko irabazi diogu, eta oraingo asteburuan Donostiarrei irabaziz gero, ligan aurreneko postuetan ibiliko gara-la esan dezakegu".

OÑATIKO XAKE TXAPELKETA

Joan den zapatuan, azaroak 30, Oñatin jokatu zen Xake Txapelketa Arlutz taldeko Fran Migelek irabazi zuen. Txapelketan talde bereko Andoni Carrasco jokalaria gazteak ere hartu zuen parte.

PILOTA TXAPELKETA

Isturitzek eta Irasuegik Korta eta Iturbe izango dituzte aurrez aurre finalean

Joan den zapatuan, hilak 30, jokatu zituzten kirol etxeko Pilota Txapelketako finalerdietako partidua, eta hona hemen emaitzak: lehenengo partiduan, Muxikak eta Sarasuak 22-17 galdu zuten Isturitz eta Irasuegiren aurka; eta bigarrenean, Kortak eta Iturbek 22-12 irabazi zieten Unanueri eta Carrillori. Abenduaren 14an jokatu den finalean, hortaz, Isturitz eta Irasuegi eta Korta eta Iturbe izango dira.

FUTBOLA

Igor Arenazaren taldeak, Granadako Motrilek, kolokan du etorkizuna

Azkenaldian Igor Arenaza futbol jokalaria aretxabaletarrak arazo asko izan ditu: lehenengo, orkatila baten zaintiratu izan zuen, eta orain, Igorren taldeak, Granadako Motrilek, arazo latzak bizi ditu. Jokalariek ez dute aspaldian soldatarik kobratu, eta hainbat egunean itxialdia egin dute aldageletan. Abenduaren 2an, gainera, Motrilen zuzendaritzak dimisioa aurkeztu zuen.

PARTIDUAK

FUTBOLA

UDA-Touring
Preferentea.
Domeka. 16:30. Ibarra.
UDA-Hamaika bat
Bigarren mailako erregionala.
Zapatua. 16:00. Ibarra.
UDA-Urki
Bigarren mailako gazteak.
Egubakoitza. 16:00. Ibarra.
UDA-Ikasberri
Lehenengo mailako kadeteak.
Egubakoitza. 12:00. Ibarra.

EMAITZAK

FUTBOLA

Tolosa 21. UDA 0
Preferentea.
UDA 6 Bergara 1
Bigarren mailako erregionala.
UDA 0 S. Tomas Lizeoa 1
Gazteen Euskal Liga.
UDA (b) 4 Urki. 3
Bigarren mailako gazteak.
UDA 4 Bergara 4
Lehenengo mailako kadeteak.
Arrasate 1 UDA 1
Bigarren mailako kadeteak.

PILOTA

Aretxab. 5 Tolosa 22
Bigarren mailako gazteak.
Aretxab. 20 Legazpi 22
Nagusiak.
Aretxab. 09 Azkoitia 22
Nagusiak.

Aitzorrotz elektronikak
Alboka gazte moda
Ana's jantzi denda
Angelines autozerbitzua
Aretxabaleta iturgintza
Asensio jantzi denda
Begiondo optika
Calderon Soledad autozerbitz.
Errasti kioskoa
Errekabarren fruta denda
Etxabe harategia
Farma bizi parafarmazia
Gantxegi harategia
Gemes edertze aretoa
Gertu janari prestatuak
Haurrak umeen moda
Ibarra estankoa
Iber loteria
Imanol janari denda
Iriarte umeen denda
Irudi ileapaindegia
Jauregi okindegia
Jon harategia
Josu harategia
Kixkur ileapaindegia
L-10 ileapaindegia
La Brasileña akeita etxea
Lasai masajek
Leibar arraindegia
Leintz mertzeria
Leniz liburudenda
Mari Karmen oinetakoak
Maritxu mertzeria
Martin erlojudenda
Miren Zuriñe bitxitegia
Nerian loradenda
Txilarra dietetika
Xume oiha denda
Zainduz osasuna/fitnessa
Zare artegintza
Zubia oinetakoak



Errege Eguneko loteria opari egiten dugu.
Zer egingo duzu tokatuz gero?

ERRETRATUZHARRA

Beroan, energia berriak sortzeko ahaleginetan

Izagirrek eta Arruek sortu zuten Aretxabaletako Industrias Beroa, Valentin Etxeberriak esan digunez. Lehenago pospolo fabrika izan zen Beroa, baina gerra aurretik dagoeneko aluminioaren laminazioan murgildu zen, eta sukaldeko ontziak, kazuelak, lapikoak, eta beste egiten zituzten Beroan. Horrez gainera, kafetera txikiak eta plantxa elektrikoak ere egiten zituzten Beroa enpresan.

Gerra denboran, soldaduendako aluminiozko platerak, kantineplorak, koilarak, eta beste egitera behartu zituzten Beroako arduradunak eta langileak. Garai gogor haiek igarota, eta gerra ondorengo urteetan arlo askotan eskasia nagusi zenean, energia iturriak ere urri ziren. Hori zela-eta, Beroan egur ikatzaz gasoginoa sortzeko galdarak ere egiten zituzten. Norbaitek gogoratu zuen zaldien satsarekin ere



gasasor zitekeela, eta saiakera batzuk egin zituzten. Goiko argazkia da horren lekuko. Industrias Beroan lan egiten zuten Aretxabaletako eta Eskoriatzako bost langile gasa sortu guran ari zirela atera zieten argazkia. Gaur egun hainbestetan entzuten diren energia iturri berrien kontuak berri-berriak direlakoan bagaude ere, horra, duela 57 urte, herrian egindako saiakerak.

Urte batzuk geroago, garaiko egoerak apur bat onera egin zuenean, Beroako nagusiek, urtean behin, Gabonetan, enplegatuei bazkaria

eskaintzeko ohitura hartu zuten. Eta handik gutxira, enplegatuek gain, lantegian lan egiten zuten gainerako langileei ere ematen zieten bazkaria. Bazkaria lantegian bertan egiten zuten: zerbitzariak eta musika ere kontratatzen zituzten egun horretarako. Gerora, gabonsaria ematen zieten langileei: turroia eta etxerako kafetera edo kafe ontziak, esate baterako.

Bestalde, Errege Eguna noiz helduko zain egoten ziren langileen seme-alabak. Izan ere, Industrias Beroako langileen umeek Errege Magoen eskutik jasotzen

zituzten opariak, lantegian bertan. Herriko ume askorendako oso egun berezia izaten zen Errege Eguna.

Goiko argazkian, aurretik esan bezala, gasa sortu guran ari diren bost langile ageri dira: goian, ezkerretik hasita, Valentin Etxeberria, Vicente Eraña eta Claudio Belategi daude. Eta erdian, Patxi Ulibarri eta behean, eskuinaldean, Santi Mayoral.

Argazkia:
Valentin Etxeberria



Taberna Berri jatetxea

Durana, 26
ARETXABALETA
Tel. 943 79 20 67

Martin
erloju-denda

*Bere bezeroen
zerbitzura*

Mitarte, 16
Tel.: 943 79 01 72
ARETXABALETA

Aretz

taberna

Markole, 5
Tel.: 943 79 14 67
ARETXABALETA

Maritxu
drogeria
mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tel.: 943 79 23 53
ARETXABALETA



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Eguena / 2002ko abenduaren 5a / 104. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABALETAKO • Tel.: 943.79.86.21 • Faxa: 943.77.18.54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

EDORTA ZUBIZARRETA/ESKORIATZAKO ALKATEA

“Alkate izatea ez da erraza, baina aldamenean lantalde ona izanez gero, gauzak egin egiten dira”

AINTZANE GARDOKI

Urtea amaitzear dagoela, herriko alkate Edorta Zubizarretari berba batzuk eskatu dizkiogu. Haren ustez, udalbatza osatzen duten kideek lana gogotik egin dute. Eta esan digu maiatzean errelebu emango duela.

Urtea amaitzear dagoela, zein balantze egiten duzu?


Egin behar izatekotan, egindakoa ona izan dela esan behar dut. Aurreko urteetan moduan, aurten ere udalbatza osatzen duten taldeek gogotik egin dute lan, eta emaitzak jasotzerakoan lan horren fruitua ikusten da.

Zein helburu izan dituzue 2002. urterako?

Agintaldi hasieran helburu batzuk jartzen dira mahai gainean. Urteko aurrekontuek helburu horiek finkatzen laguntzen dute, eta aurrekontuok, era berean, urteko ekintzen nondik norakoa definitzen dute.

Hortaz, aurten egindakoak?

Udaletxea zaharberritzeko lanak aurrera doaz; 450 m² izango dituen liburutegi berriko lanak



KEPA ERRASTI

amaitzear daude; herrian dauden barrera arkitektonikoen kontrako lanak egin ditugu; eta Ibarraundi baserriko lanak ere egiten hasita daude. Hirigintzarekin lotutako lanak aipatu ditut, begi bistakoak direlako eta, askotan, lanok buruhauste bat baino gehiago sortzen dutelako auzotarren artean. Edozelan ere, hirigintza arloko gaiez gain, beste arlo batzuetan ere makina bat gauza egin ditugu.

Herria hartu zenutenetik, zertan aldatu da Eskoriatza?

Abian dagoen Hirigintza Plana betetzen ari garen neurrian, herriaren itxura aldatzen ari da. Lan txikiek, batetik, eta aipatutako beste lan handiagoek, bestetik, herriari beste aire edo taxu bat eman diote. Dena dela, beste arlo batzuetan hobetu gura nuke: herriaren garbitasunean, adibidez. Ea agintaldia amaitu orduko emaitzak lortzen hasten garen.

Maiatzean udal hauteskundeak izango dira; Edorta Zubizarreta hor egongo da?

Ez, ez dut asmorik alkate lanetan jarraitzeko; hortaz, errelebu emango diot herriaren alde lan egin gura duenari.

Zelan moldatu zarete udal-

batza osatzen duzuen taldeon artean?

Ni oso pozik eta oso gustura nago udalbatzarekin. Agintaldia hasi zenean zinegotzi guztiei eman zitzaien lantaldeetan aritzeko aukera, eta, egia esatearren, jendeak oso ondo erantzun du. Hor daude emaitzak!

Batasunak zer egingo du hurrengo hauteskundeetan?

Ez dago argi zein nolako formula erabiliko duen hauteskundeetara aurkezteko. Eta hor egongo dela, seguru; baita Udalak gure esku jarraituko duela ere.

Herri txiki baten alkate izatea gaitza da?


Alkate izatea ez da erraza, baina borondatearekin eta aldamenean lantalde ona izanda, gauzak egin egiten dira.

Zer eman dizu alkate izateak?

Herria eta herritarrak hobeto ezagutzeko, edo, behintzat, beste ikuspuntu batetik ezagutzeko aukera.

Zer esango zenieke herritarrei?

Daukaguna zainduta eta herritarrok bata besteekin lankidetzan, herri hobe egingo genukeela.



Inoiz baino arrakastatsuago

Sarrera guzti-guztiak saldu zituen Axtrokik; 1.450 ume eta aita-ama egon ziren Takolo, Pirritx eta Porrotxen 15. urtebetetzea ospatzen. *Maritxu izeba*, *Beltzi*, *Sarturnino*, *Tarrapatata* eta *Kintxo*-k, besteak beste, ez zuten hutsik egin. Jendez gainezka, kantuan eta dantzan, algaraz bete zen herriko kiroldegia. Axtroki pozik dago zapatuko emaitzarekin, baina ekitaldiak gero eta arrakasta handiagoa duela ikusita, zer hobetu badutela ere esan digute; aparkalekuak egokitu beharra, adibidez. Emanaldia bukatuta, milaka musu banatu zituzten pailazoek.

LABUR

Eskolak, material informatikoa ezagutzeko aukera

Debagoieneko Euskara teknikariek deituta, hilaren 13an, ibarreko eskolek batzarra egingo dute Eskoriatzako kultura etxean. Irakasleei Elhuyar Zientzia Elkarteak daukan material informatikoa erakustea du helburu batzarrrak; 5 urtetik gorako umeendako material didaktikoak ikusteko eta aztertzeko aukera izango dute. Abenduaren 13an, 14an eta 15ean, berriz, *Euskarazko liburu eta informatika gaiak* erakusketa izango da, kultura etxean, 18:00etatik 20:00etara.

TELEFONOJAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Eceiza	943 71 53 56
Jose Arana Almen Ikastola	943 71 44 86
Almen	943 71 49 07
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 40 77
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaizntza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Deiak	112

OHARRAK

SUKALDARITZA IKASTAROA

Amuskak antolatuta, hilaren 9an, 10ean eta 11n, M. J. Miguel eskoriatzarrak sukaldaritza ikastaroa emango du kultura etxean, 18:00etatik 21:00etara. Izenematea: lau euro.

'GABON BIDEAN' PROGRAMA

Abenduaren 11n, Enkarni Genuak *Erreka Mari*, azken lamia txotxongilo emanaldia egingo du, liburutegian, 18:00etan. Bestalde, abenduaren 13an, 14an eta 15ean, haur eta gaztetxoendako euskarazko liburu eta informatika jolas eta materialen erakusketa egingo dute, kultura etxean.

AXTROKIRENAGENDA

ESKERRAK EMAN GURAN


Axtrokik eskerrak eman gura dizkie: batetik, Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen emanaldian izan ziren ume eta guraso guztiei; eta, bestetik, emanaldia prestatzen lagundu zuten guztiei.

HIRIGINTZA

Urte eta erdiz Arana kaleko 21.ean egon den garabia kendu egin dute

AINTZANE GARDOKI

Iaz, uztailearen 5ean, San Pedroak amaituaz bat jarri zuten garabia Aranako kaleko 21. zenbakian. Lehen zegoen etxe zaharra bota, eta Mauricio Arregi enpresa eraikitzaileak eraikin berria egin du. Oianguren ahizpak izan dira sustatzaileak. Bederatzi etxebizitza eta etxabe bat egin ditu Bergarako enpresa eraikitzaileak. Lanak ez dituzte guztiz bukatu, baina lanik handienak egin dituztela-eta, joan den astean, urte eta erdiz han egon den garabia kendu egin zuten. Garabia kentzeko Udalean beharrezko baimenak eskatu eta gero, hilaren 28an, bai autoendako bai oinezkoendako Arana kalea itxita egon zen. Goizeko zortzietan hasi eta arratsaldeko lau eta erdietan amaitu zituzten garabia kentzeko lanak; horren ondoren, bidea zabaldu zuten udaltzainak.



Goizeko zortzietatik arratsaldeko lau eta erdietara Arana kalea itxita egon zen.

TXUTXUMUTXUA



'Txuri-uridin, txuri-uridin maitea...'

Txuri-uridin jantzita, eta turuta eta guzti, joan ziren herriko 25 gazte eta bi begirale Anoetara. Realaren eta Bartzelonaren arteko partidua ikustera. Autobusa berandu etorri zen, Donostian ere sartzeko arazoak izan zituzten, baina, azkenean, garaiz heldu ziren Anoetara Eskoriatzako zaletuak. Emaizta (2-1) ez zen batere txarra izan, inondik inora; edozelan ere, urduri baino urduriago izan ei zen eskoriatzar bat baino gehiago Anoetan. Eguraldiak ez zuen bat ere lagundu, euria izan zen nagusi, baina harmailetakoa giro beroa izan zen arratsaldeko protagonista. Pozik zortzen itzuli ziren gazteak. /A.G.

LABUR

Haur eta gazte literaturako liburu onenen gida

Durangoko Euskal Liburu eta Diskoen Azoka gain-gaiean daukagu, eta HUHEZI fakultateak *Irakur Gida* argitaratu du. Haur Liburu Mintegiak argitaratzen duen gidan iaz 6 eta 16 urte bitarteko umeendako argitaratu ziren 229 liburuak jasotzen dira. Hiru multzotan banatu dituzte liburuak: zerrenda orokorra, liburu gomendagarriak eta liburu oso gomendagarriak. Haur Liburu Mintegiak kaleratutako *Irakur Gida* eskoletan eta liburutegietan banatu dute.

Gaztaina-jana antolatu zuten Ezeiza Ikastetxean

Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkartek gaztaina erre jana antolatu zuen eskolako ikasle, irakasle eta gurasoendako. Joan den eguen arratsaldean, danbolinari eragin eta eragin ondoren, gaztaina erre gozoz gain, txokolate beroa hartzeko aukera ere izan zuten eskolara hurreratu zirenek. Umeez naturarekin lotutako eskulan lantegiak egin zituzten, hosto, arrama eta uso lumekin, besteak beste. Guraso Elkarteak pozik dago jaiak izan zuten arrakastarekin.

Euskara eta ikastola protagonistak

San Frantzisko Xabier Eguna ospatu zuten, martitzenean, Arizmendi Ikastolan. Jose Arana eta Almen guneean ere, euskara eta ikastola gai hartuta, makina bat ekintza izan zituzten ikusteko, entzuteko eta egiteko: euskal jokoak, Bertso-paper Lehiaketa, Mural Lehiaketa eta hainbat jaialdi egin zituzten. Txistorra ere ez zen falta izan. Eta nagusienez Donostiako 50. Zinemaldian eman zituzten film laburrak ikusteko aukera izan zuten.

Calderería
Cantera, S.L.
ALUMINIOAK

Zurgintza alumioa erabilia

Aingeruguardakoa ibilbidea z/g
T. 943 71 49 11 F. 943 71 44 21
ESKORIATZA

TOKI
ALAI
TABERNA

Karajiloetan
espezializatua

Tel.: 943 71 47 29
ESKORIATZA

AZKOAGA
ESTANKOA

Zure
Zerbitzura

Santa
Ana
GOZOTEGIA



Santa Ana 7
ESKORIATZA
Tel. 943 71 52 36

Zortzi bikotek hartuko dute parte Gatzagako Pilota Txapelketan

AINTZANE GARDOKI

Aurtengo Pilota Txapelketan zortzi bikotek hartuko dute parte, iaz baino dezente gutxiagok. Iaz, bi hilabete luze iraun zuen Pilota Txapelketak. Aurten, antolatzaileek egun bakarrean egingo dute Pilota Txapelketa. Bihar, egubakoitza, izango dira partiduak, 17:00etan.

Lurrek eta Ibaik Aitorren eta Igoarren kontra jokatuko dute lehenengo partidua; hau da, herriko gaztetxoekin hasiko da Pilota

Txapelketa. Nagusien txanda etorriko da gero; zortzi bikote arituko dira: Unai-Beloki, Oñate-Txarrantxa, Aritz-Jon Barandiaran, Iñusti-Agarre Goikoa, Asier-Agarre, Aitor-Agarre Behekoa, Joseba-Aitor eta Ibai-Joseba Lezeta. "Azkeneko bi bikoteak Eskoriatzakoak dira. Ez ditugu ezagutzen, baina jokatzeko dutela badakigu, askotan ibiltzen dira-eta frontoian"; esan digu Pilota Txapelketako antolatzaile Ignacio Belokik.

Iaz txapelketa luze joan zela-eta, aurten, egun bakarrean egingo dute Pilota Txapelketa: "Iaz, aste-

bururo, beti egiten zuen kale bikotereren batek. Hori dela eta, jokatu bako partiduak gelditzen ziren, eta horrek ondorengoak atzeratzea ekartzen zuen behin baino gehiagotan; eta azkenean, larregi luzatu zen txapelketa. Aurten, egubakoitzean eta zapatuan egin gura genuen txapelketa, baina, egia esan, iaz baino bikote gutxiagok eman dutenez izena, egun bakarrean egingo dugu txapelketa; bikoteen arteko ligaxka egingo dugu. Hiru eguneko jaia izateak, agian, eragina izango zuen jende gutxiagok izena emateko orduan, baina aurreko

urteetako bikote batzuk ere desegin egin dira: bikotekide batek min hartu badu, beste bikotekideak ez du bikotekide berririk aurkitu, eta, horren ondorioz, ez dute parte hartzen txapelketan", gaineratu du Ignacio Belokik.

Txapelketa antolatzeko, laguntza eman dute Udalak, Jakionek, Eskuz larru dendak eta Toki Eder Elkarteak. Antolatzaileek oraindik ez dute guztiz erabakita ze sari emango dituzten; edozelan ere, jakin badakite txapelketa amaitu ondoren afaria egingo dutela pilotarietara, elkarrekin, Elkarteak.



Eskulanak, txokolatea eta gaztaina erreak

Eskolako umeak joan den eguean Eskoriatzako Luis Ezeiza Herri Eskolako Guraso Elkarteak antolatutako jaialdian egon ziren. Naturak udazkenean eskaintzen dituen produktuak izan zituzten eskulanak egiteko lehengai: esate baterako, intxaurrekin itsasontziak egin zituzten eta uso lumekin txoriak jantzi zituzten. Gurasoak eta aiton-amonak izan ziren umeekin batera. Gaztaina erre bero-beroak dastatu, eta poz-pozik itzuli ziren guztiak herrira. /A.G.

LABUR

Gatz Museoa itxita egongo da domeka arratsaldeetan

Gatz Museoak bisitaldi orduak aldatu egin ditu. Museoa ikusi gura duenak aukeran dauzka zapatuetan eta domeketan, 12:00etan euskarazko bisitaldi gidatua eta 13:00etan, gaztelaniazkoa. Arratsaldeko ordutegiari dagokionez, berriz, ordu bete aurreratu dute; hau da, zapatuetan, 16:30ean, euskarazko bisitaldia izango da eta 17:30ean, gaztelaniazkoa. Neguko ordutegiaren barruan kokatu behar da ordu aldaketa. Datoren apirilera edo maiatzera arte egongo da indarrean ordutegi hori. Aurrerantzean, gainera, domeka arratsaldeetan itxita egongo da Gatz Museoa.

Gatzaga, Errektore Kontseiluaren partaide

Joan den barikuan, Goiena Kooperatibak ezohiko batzar orokorra egin zuen Arrasaten. Kontseilu Errektorea osatuko duten ordezkari berriak aukeratu zituzten, besteak beste, Orain arte, Aintzane Gardoki izan da GURELen ordezkaria Goienako Kontseilu Errektorean. Datozen lau urteotan, berriz, Guraso Elkarteak ez du ordezkari izango Kontseilu Errektorean; edozelan ere, Udalak Goienako bazkide laguntzaile den neurrian, J. Agirreurretak hartuko du parte Kontseilu Errektorearen batzarretan.

ALZA

- Sukaldeko Bateriak
- Lapiko Lasterrak
- Zartakin eta Paeilaontzi itsasgaitzak

Aingeru Ibiltoki 3
Tel.: 943 71 31 29 Eskoriatza 20540

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

Ze barri?

Izan zaitetz zeu ere berriemaile!

Zure taldearen, auzoaren, elkartearen...
gaineko informazioa emateko, deitu gurerara!

943 79 86 21

FAGOR



**ELEKTRATRESNA
TXIKIKO
NEGOZIOA**

Aingerugarda ibilbidea, z/g
Tel.: 943 03 91 00 • 943 71 54 52 (SAT)



**EZ HUT'S EGIN
KIROLA OPARITU**

SPORTLAND
FORUM SHOPS

SPORTLAND ARRASATE
Garibai etorbidea. 2-6 Gipuzkoa



Gemes
edertze aretoa

Durana 40 ARETXABALETA
943 79 99 18

Depilazio elektrikoa: patilak, bigotea, okotza • Depilazioa: argizari beroa eta hotza • Dekolorazioa • Behin betirako makilajea bekain eta ezpainetan
Eguneko makilajea: ezkontzak, ezkongalak... • Azalaren garbiketa osoa: adinaren eta zimurren aurkakoa, hidratazioa, aknea, shock (lifting-a)
Ordezko azazkalak, natural-naturalak, manikura eta aplikazioa • Pedikura • Dieta pertsonalizatuak • Betileen tindaketa • Solarium zerbitzua ere badaukagu

Aretxabaleta eta Eskoriatzako

Gremioen Gida

Altube
elkizirikatea CB

San Migel 13 - 1D
Aretxabaleta. 943 79 53 88

Dintura eta dekorazioa

Simbert

San Migel 13, behea C
ARETXABALETA
609 143 119

TXOMIN
igeltserotza
ARETXABALETA

ERREKABARREN 20
607 739 835 / 943 79 63 94

RADIO
ELECTRICIDAD
LEGAZPIA

"R.E.L.E."

Denda:
Santa Ana 17, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 65

Tallerra:
Santa Ana 12, Eskoriatza
Tfnoa-Faxa: 943 71 41 12

ESKORIATZA

AITZORROTZ
elektronika

- Telebista, audio eta bideo salmenta eta konponketa
- Atezin automatikoak
- Antena kolektiboak
- Informatika
- Instalazio elektrikoak

Aitzorrotz elektronika Tel.: 943 79 16 10
Otalora, 14 ARETXABALETA

Hnos. SAJERAS, C.B.

Margogintza
Dekorativo eta Industrial

San Pedro, 14 behea ESKORIATZA
Tel.-Faxa: 943 71 47 28
Arrasate Tel.: 943 77 16 66
Mobila: 608 92 11 18

PINTURAS
ESKORIATZA

- Pintura orokorrean
- Fatxaden pintatzea
- Iztukuak, eta abar

Olaeta 2, 1-ekz. ESKORIATZA
Faxa: 943 77 07 92. Sakelakoa: 605 772 769

Jon Axpe Oyanguren

OYANGUREN
Iturgintza

Aranburuzabala 15
ESKORIATZA
Tel.: 943 71 47 14
606 007 369
f.oyanguren@ctv.es

Iturgintza • Gasak • Berogailuak • Peetrolio-produktuak • limatizazioa

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

AIDE GAS S.L.

Loramendi 8, Aretxabaleta.
Tel.: 943 71 27 73 / 605 71 27 05

Gasak • Berogailuak
Bainuak • Iturgintza

URKO
MANTENIMIENTO, S.L.

Instalazioen mantenu osoa
Berokuntza • Gasak
Aire girotua • Haizeztatzea

Basabe industrialdea B-3. Aretxabaleta.
Tel.: 943 77 19 88. Faxa: 943 79 59 97

ALUMINIOA/P.V.C.α/POLIURETANOα
ALUMINIOA-EGURRA
PERTSIANAK ETA OSAGAIK

Aluminios
KURTZEBARRI
Aluminioak

Araba Ibilbidea, 25
• Tel.: 943 79 28 41 • Fax: 943 79 79 06
• 20550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)
• E-mail: kurtzabarriehiak@euskalnet.net

GORBEA S.L. **K21**

Basabe poligonoa A-2-5 ARETXABALETA
Telefonoa eta faxa 943 79 15 71

ARETXABALETA
ITURGINTZA

Durana, 16-Tel.: 79 17 53
ARETXABALETA

J.J. ITURGINTZA
IRURE

URA
GASAK
KALEFAKZIOA

MITARTE 15
ARETXABALETA **943 793 187**